

Más del manuscrito de W. WEBSTER

El siguiente cuento —*Heren Sugea*— (El Dragón) es una variante inédita del mismo tema publicado por los autores (Barandiarán, etc.). Está copiado igualmente por Videgain, y corregidos los defectos notorios de la copia de WEBSTER por nosotros; respetando el original de la Biblioteca Municipal de Bayona.

HEREN-SUGEA

Asko munduan bezala, bazen ama bat bere hiru semekin; zaharrenak erran zion eta, gan nahi zuela munduz mundu sehi plaza bat atxeman arte, eta emateko opil bat; partitzen da. Bazoalarik, oian batean atxematen du emazteki zahar bat eta galdetzen dio ogi pixka bat; ezetz erraten dio, nahia-go lukela basabuztiñ hortarat botatu; eta gizon gazte horrek galdetzen dio eyan mutil plazarik senti duen; ezetz erraten dio eta badoa oyanez oyan gauak atxematen dion arte.

Heldu zaio otsoa bat; erraten dio: —«Lurreko xinaurria, nork eman hau permisionea hunat etortzeko? —Nork eman behar nindikan? Neronek hartu». —Eta irestendu. —Bigarren semeak bere amari galdetzen dio bere anaiak bezala, mutil nahi duela gan eta emateko opil bat; ematen dio eta badoa; bertze anaiak bezala emazteki zahar hora atxematen du; erraten dio: —«ekarzu opil pittin bat. —Nahiago dut zuri eman baiño basa buztiñ hortarat bota»; eta mutil horrek galdetzen dio sehi plazarik senti duen. —Erraten dio ezetz; eta badoa, gan, gan, gan, oyanean barna, eta otso handi bat atxematen du. Erraten dio; —Lurreko xinaurria, nork eman hau permisionea hunat etortzeko? —Nork eman behar nindikan?, neronek hartu». Eta iresten du.

Hirugarren semeak bere amari galdetzen dio bertze anaiak bezala, gan nahi duela eta emateko opil bat. Partitzen da, gan, gan, gan, eta atxematen du emazteki xahar bat; galdetzen dio. —«Norat zoazi mutikoa? Plazatu nahi nuke. —Ekarzu opil pitta bat. —Hori guzia ere nahi baduzu. —Ez, ez, pixka bat aski dut». Eta galdetzen dio eyan sendi duen mutil plaza bat. —Baietz

erraten dio; palazio bat atxemanen duela oyanetikan urrun, bai eta etsai bat, baiñan makil bat ematen dioela, zeñarekin ukituko duena hilen baita. Badoa, gan, gan, gan, heldu zaio otso bat erraten baitio:

—«Lurreko xinaurria, nork eman hau hunat etortzeko permisionea? —Nork eman behar nindikan?, neronek hartu». Eta ematen dio zarta bat bere makilarekin lepoan; otsoa marrasketan ematen da: —Oi, oi, oi, utz nazak! utz nazak bizia». Baiñan erraten dio: —«Zaizten tokian, zenbat zaizten erran nazak. —Zazpi». Bertze zarta bat ematen dio eta hil otza erortzen da. Badoa, gan, gan, gan, palazioa atxeman arte ta palazio harten sartzen da; behar zuten mutilik galdetzen du; baietz erraten diote, artzaña gana dutela eta behar dutela. Ogerat egortzen dute.

Biharamuñean artalde eder bat ematen diote, eta ez gateko holako mendirat erraten dio, alimalia handi eta izigarri batzuez betea baita, eta ungi kontua emateko, ardiak beti harat gan nahi baitute. Biharamuñean bere ardiak badoa eta denak eskapatzentzaizkio mendi artarat (*sic*), zeren bazka ederra baitzen han. Gure artzañak etzuen bere makila ahantzi, beharrik, istantean otso izigarri bat agertzen baizaio. —«Nork eman behar hau permisione hunat etortzeko? —Neronek hartu. —Yan behar haut».

Urbiltzen zaio eta gure artzañak bere zigorrarekin golpe ttiki bat ematen dio lepoan. Ematen zaio oyuka. —«Ay, ay, ay, utz nazak bizia. —Erranazak bada, zenbat zaizten tokian. —Zazpi gintukan atzo, baiñan egun enekin sei». Bere makillarekin bertze golpe bat ematen dio, hil gogorra erortzen da eta ahal bezala sasi batean gordetzen du.

Artzaña badoa etxerat, ardiak ungi aserik. Arratsean esne hanitz eman zioten eta gasna eder batzuek —in zituen. Etxeko yauna eta etxeko andrea xoratuak ziren halako mutil ona izaiteaz.

Biharamuñean badoa igual; atea ideki orduko ardi guziak lasterka badoazi, bezperako belar eta bazka on haitara, eta igual instant baten buruan artza agertzen da. Erraten dioelarik zertan dabilan toki hekietan, gure artzañak bere zigorrarekin zarta bat ematen dio lepoan, eta artza oyuka asten da: «—Ay, ay, ay, utz nazak bizia!». Artzañak galdetzen dio; —«zaizten tokian, zenbat zaizte? —Bagintukan zazpi eta orai bortz nerekir».

Eta horrekin bertze zarta bat ematen dio eta hil gogorra erortzen da. Eta bertze hiruak igual hil zituen, egunean bat.

Eta azkenekoa etorri zenean harritu zen halako bestia handia eta izigarría ikustean; errestan arribatu zen, hain zaharra zen. Igual erraten dio zertan zabilan inguruetañ! Eta horrekin batean zarta bat ematen dio. Orroaz oyuka ematen da, uzteko bizia, emanen ziola aberastasunak, toki ederrak eta elkarrekin biziko zirela. Bizia uzten dio, artaldea etxerat egortzen du ungi aserik, eta sasiz sasi badoazi lamiña zilotarik.

MÁS DEL MANUSCRITO DE W. WEBSTER

Palazio eder baterat arribatzen dire; han mahaiña emana atxematen dute, zernahi gauza on jateko; mutilak ere baziren gure zerbitzuko, zamariak prestatuik, baiña nola antolatuak! harnasak urrez eta diamantez beztituak, gela osoak urrez eta zillarrez beteak, etzen aberastasunik bertzerik! —Zenbait egun hala pasatuta, gure artzañak bere buruari erran zuen, hobe zuela bere nausi izan, fortuna hok guziez baiño. Artzari ematen dio zartako bat eta hiltzen du hil gogorra.

Zaldi gañean eman, ederki bezitu eta badoa munduz mundu; herri baterat arribatzen da eta ezkilak aitzentu, diling dong, diling dong, dong, zeintan mundu guzia airean baizen; zer den galdezen du; erraten diote nola den mendian herensuge bat, zeñeri presuna bat behar baitzaio eman egun guziez. Suge *arek* (sic) zazpi buru bazituen; sortea —iten zen jakiteko nor eman sugeari; erori zen erregen alabaren gañerat; mundu guzia penetan eta xangrinetan zen; denak bazoazin, errege buru, haren segi mendarat.

Mendiaren azpian uzten dute eta bera goiti bazoan; gizon gazte hura ondotik badoa eta erraten dio nahik (sic) duela segitu. Erregen alabak erraten dio; —«Zoazi, otoi, gibelerat, eztut nahi neregatik zure bizia irriska dezazun». Baiñan ez izitzeko hartaz erraten dio, podori zerbaiz bazuela. Horrekin batean harrabots eta ziztu handi batzuek aitzen *dute* (sic), eta sua bezala ikusten dute hekien gañerat heldu dela.

Gure jaunak bere makila han baitzuen, zarta bat ematen dio buru baten gañean, eta bat banazka zazpiak pikatzen diozka eta gure printzesak salbatua da. —Mendirat gateko bere arropa ederrenak yaunzi zituen; soiñean zazpi bazituen. Puska bana hartzen dio arropa bakotxetik, eta igual buru bakotxetik mihiak, zeñak seda puska hekietan ematen baititu; erregen alaba hori bere zaldiaren gañean *artzen* du (sic) eta yausten dire menditik; erregen alaba badoa bere aitaren etxerat eta gure yauna bere otsoaren etxera.

Herensugea hil delako berria yakindu zen. Erregek agindu zuen, bere alaba eta erresumaren erdia suge hura hil zuenari ematea. Hiru ikatzgibilek menditik pasatzean suge hura ikusten dute, zazpi buruak hartzen dituzte eta erregenganat badoazi, bere saria nahiz; baiñan hiru baiziren, embrazutan ziren; eta kontseilua bildu arte egorri zituzten, eta eyan bertze norbait etorriko zen ikusi arte. Nihor ez baizen ageri, sortearen tiratzerat zoazin, nor izanen zen erregen alabaren senarra.

Jaun gazte hura arribatzen den egunean, mogimendu handi bat zen herri hartan; zer den galdezen du eta erraten diote. Ederki beztitua eta zamari eder batekin zen; errege ikustea galdezen du eta ederki beztitua baizen bere-hala errezibitu zuten. Eian buru hekiek mihiak *bazuten* galdezen du, eta etzuten atxeman; orduan zazpiak erakusten-tu; erregen alabaren zazpi arropak ekar-arazten ditu, eta eskas ziren zazpi puskak erakusten-tu.

Zazpi mihiak ikusten-tuztenean, denek erraten dute hori dela egiazko erregen alabaren salbatzailea eta esposa; bertze hiru ikazgiñ-eri atorra sufrizia bana eman eta erre zituzten plazaren erdian.

Eta gure jaun andereak ungi bizi ziren, batzuetan bere aitarekin eta bertzeten bere otso tokian.

Ungi bizi izan baziren, ungi hil ziren // Orduan han nitzen eta orai hemen.

LE HEREN SUGUE

Comme souvent dans le monde, il y avait une mère. L'aîné de ses trois fils lui dit qu'il voulait partir de par le monde jusqu'à ce qu'il trouve une place de domestique. Il lui demande une galette et s'en va.

Alors qu'il passait dans une grande forêt, il rencontre une vieille femme qui lui demande un petit bout de galette. Il lui dit que non, qu'il préférerait la jeter dans ce marécage boueux. Le jeune homme lui demande si elle ne connaît pas une place de domestique. Elle répond que non. Il s'en va par monts et par vaux jusqu'à ce qu'il soit pris par la nuit. Il vient un loup qui lui dit:

—Fourmi de la terre, qui t'a donné la permission de venir ici?

—Qui devait me la donner? Je l'ai prise moi-même!

Et le loup l'avale.

Le second fils dit à la mère que, comme son frère, il voulait partir pour être domestique. Il lui demande une galette. Elle la lui donne et il s'en va. Comme l'autre frère, il rencontre une vieille femme:

—Donnez-moi un morceau de galette!

—Plutôt que vous le donner, je préfère la jeter dans ce marécage boueux.

Et le garçon lui demande si elle connaît une place de domestique. Elle lui dit que non. Et il s'en va, va, va, va à l'intérieur des forêts. Il trouve un grand loup qui lui dit:

—Fourmi de la terre, qui t'a donné la permission de venir ici?

—Qui devait me la donner? Je l'ai prise moi-même.

Et le loup l'avale.

Le troisième fils, comme les autres frères, dit à sa mère qu'il veut partir et qu'elle lui donne une galette. Il part, va, va, va et trouve une vieille femme:

—Où allez-vous, garçon?

—Je veux me placer.

MÁS DEL MANUSCRITO DE W. WEBSTER

—Donez-moi un morceau de galette.

—Même tout, si vous voulez.

—Non, non, j'ai assez d'un morceau.

Et il lui demande si elle connaît une place de domestique. Elle lui dit que oui et qu'il trouvera un beau palais loin de la forêt, qu'il rencontrera un ennemi mais qu'elle lui donne un bâton avec lequel il le tuera.

Il va, va, va: le loup arrive qui lui dit:

—Fourmi de la terre, qui t'a donné la permission de venir ici?

—Qui devait me la donner? Je l'ai prise moi-même. Et il lui donne de son bâton un petit coup sur la gorge. Le loup se met à hurler;

—Oy, Oy, Oy, laisse moi! laisse-moi la vie!

Mais le jeune homme lui dit:

—Dis-moi combien vous êtes à l'endroit où vous êtes?

—Sept.

Il lui donne un autre coup et le loup tombe raide mort.

Il va, va, va jusqu'à trouver le palais, y entre enfin et demande si on a besoin d'un domestique. On lui dit que oui: leur berger était parti, il en fallait un autre. On l'envoie se coucher. Le lendemain, on lui donne un beau troupeau en lui disant de ne pas aller à telle montagne —car y abondent certains animaux grands et terribles— et de faire bien attention car les brebis veulent toujours aller par là. Le lendemain, il part avec ses brebis et toutes s'échappent vers cette montagne parce que la pâture y était belle. Notre berger n'avait pas oublié son bâton; heureusement, car à cet instant lui apparaît un loup terrible:

—Qui t'a donné la permission de venir jusqu'ici?

—Je l'ai prise moi-même!

—Je vais te manger!

Il s'approche mais notre berger lui donne de son bâton un petit coup sur la gorge. Le loup se met à crier:

—Oy, Oy, Oy, laisse-moi la vie!

—Dis moi combien vous êtes ici!

—Nous étions sept hier mais aujourd'hui avec moi six! Il lui donne de son bâton un autre coup et le loup tombe raide mort. Le jeune homme le cache comme il peut dans un fourré. Il rentre à la maison, les brebis bien rassasiées. Elles lui donnent beaucoup de lait dont il fait de bons fromages. Le maître et la maîtresse de maison étaient ravis d'avoir un si bon domestique.

Le lendemain, de même, dès qu'il ouvre la porte, les brebis s'en vont vers l'herbe et la pâture de la veille. De même, au bout d'un moment apparaît un ours qui lui demande pourquoi il passait par ces endroits-là. Notre domestique de son bâton lui donne un petit coup sur la gorge et l'ours se met à hurler:

—Oy, Oy, Oy, laisse-moi la vie!

Le garçon lui demande:

—Combien êtes-vous à l'endroit où vous êtes?

—Nous étions sept mais à présent cinq avec moi.

Le garçon lui donne de son bâton un autre coup et il tombe raide mort. Il fait de même pour les trois autres en un jour. Quand le dernier d'entre eux arrive, il est stupéfait de voir une bête énorme et terrible arriver en se traînant tant elle était vieille. Elle lui demande aussi où il allait par là. En même temps, il lui donne un coup. Elle se met à hurler et hurler, qu'il lui laisse la vie, que elle lui donnerait des richesses et de beaux domaines, qu'ils vivraient ensemble. Il lui laisse la vie. Il renvoie le troupeau bien rássasié à la maison et ils s'en vont par les haies et par les trous de fées (de lamiña) et arrivent dans un beau château.

Ils trouvent la table mise et beaucoup de bonnes choses à manger. Il y avait aussi des domestiques à leur service, ainsi que des chevaux tout prêts; il fallait voir comme ils étaient ornés de harnais en or et habillés de diamants. Toutes les chambres étaient pleines d'or et d'argent. Il n'y avait là que richesses.

Au bout de quelques jours passés ainsi, notre berger se dit en lui-même qu'il valait mieux être le maître de toute cette fortune. Il donne un coup à l'ours qui tombe raide mort.

Il monte à cheval, après s'être bien habillé, et va de par le monde. Il arrive dans une ville où il entend les cloches diling, dong, diling, dong, dong et tous les gens étaient agités. Il demande ce qui se passe. On lui raconte comment il y a dans la montagne un herensugue à qui il faut tous les jours donner une personne humaine. Ce serpent avait sept têtes. On tirait au sort pour savoir qui on allait donner au serpent et le sort venait de tomber sur la fille du roi; tout le monde était dans la peine et le chagrin. Tous, le roi en tête, vont l'accompagner vers la montagne.

On la laisse au bas de la montagne: elle allait seule vers le sommet lorsque le jeune homme la rattrape et lui dit qu'il veut l'accompagner. La fille du roi lui dit:

—Retournez-vous-en, je vous en prie, je ne veux pas qu'à cause de moi, vous risquiez votre vie.

MÁS DEL MANUSCRITO DE W. WEBSTER

Mais il lui dit de ne pas avoir peur, parce qu'il avait quelque pouvoir. A cet instant, ils entendirent un grand bruit et de grands sifflements et virent s'approcher d'eux comme un éclair de feu. Notre homme avait là son bâton et il en donne un coup sur une tête et sur chacune des autres têtes. Il coupe les 7 têtes et notre princesse est sauvée.

Pour monter sur la montagne elle avait mis ses plus beaux habits; elle avait revêtu sept robes. Lui, coupe un morceau de chaque robe et prend aussi dans chaque tête la langue qu'il enveloppe, chacune dans un de ces morceaux de soie. Il prend la jeune fille sur son cheval: celle-ci rentre chez elle et notre homme rentre vers la maison de l'ours.

La nouvelle que l'herensugue a été tué se répand vite. Le roi avait promis de donner sa fille et la moitié de son royaume à qui tuerait ce serpent. Trois charbonniers qui descendaient de la montagne voient le serpent et prennent les sept têtes. Ils vont au roi chercher leur récompense. Mais comme ils étaient trois, on était embarrassé et on les avait renvoyés jusqu'à ce que le conseil fût réuni et au cas où quelqu'un d'autre viendrait. Si personne d'autre ne venait, on tirerait au sort celui qui serait l'époux de la fille du roi.

Il y avait un grand mouvement ce jour-là et aussi le jour où le jeune homme arriva dans cette ville. Il demande ce qui se passe. On lui dit ce qu'il en était. Ainsi bien habillé et avec un beau cheval, il demande à voir le roi et comme il était bien habillé, on le reçut tout de suite. Il demande à voir si les sept têtes ont leur langue et on ne les trouve pas. Il les montre alors les sept. Il fait apporter les robes de la fille du roi et montre qu'il manque les sept morceaux et les sept langues. Voyant cela, tous disent que celui-ci est vraiment le sauveur de la fille du roi. Quant aux trois charbonniers, on leur mit à chacun la chemise de soufre et on les brûla au milieu de la place. Notre couple vécut bien, tantôt dans la maison du père, tantôt dans la maison du loup.

S'ils vécurent bien, ils moururent bien.
Alors j'étais là-bas et maintenant ici.

Ch. VIDEAGAIN & A. IRIGARAY

